

BALIO PROPOSAMENA

SOLARGI: Gailu elektronikoen kargarako osagarrien kontsumoa eta ondorioz ingurunearekiko emisioak murriztu eta alternatiba eroso planteatzen duen enpresa da, eguzki plakadun telefonoentzako zorro magnetikoak. Gure elkartearen izenaren jatorria berezia da; Sol (sol-is eguzkia latinez) eta argi (eguzkiak igortzen duen energia) hitzen baturatik dator.

Gure helburu nagusia Energia berriztagarria erabiliz bezeroei telefonoa kargatzeko modu eroso helaraztea da.

Hainbat arrazoiengatik gure produktua erakargarria izan daiteke bezeroentzat. Eguzki-energia bidezko kargaz gain, gure produktuen bitartez norberaren nortasuna eta izaera adierazteko beste modu bat zabaltzen dugu pertsonalizazio aukeraren bitartez. Prezio gehigarri baten truke kolorea, diseinua, irudiak eta bestelako aukerak baliatu ditzakete bezeroek beren indibidualtasuna eta originaltasuna adierazteko, munduan horrelako beste mugikor-zorrorik ez dagoela ziurtatuz beti ere.

Kalitateari dagokionez bermatzen duguna gailuen iraunkortasuna eta segurtasuna da. Estalki arrunten modan, mugikorra babesten du kolpeengatik, eta kantitate gehigarri bat ordainduta diseinua pertsonalizatzeko aukera eskaintzen dugu.

Lehenik eta behin, aliantza estrategikoak ezartzea eta funtsezko ekitaldietan parte hartzea bilatzen dugu, publiko zabalagoa eta askotarikoagoa lortzeko. Uste dugu Bilbao Maker Faire edo bestelako topaketa teknologikoetan parte-hartzeak aukera bikaina emango digula kontsumitzaileekin zuzenean konektatzeko, atzeraelikadura baliotsua jasotzeko eta tokiko merkatuan Solargiren ikusgarritasuna handitzeko.

Horrez gain, Fnac enpresa teknologiko ezagunarekin lankidetzan arituko gara gure produktuen presentzia Espainian zabaltzeko. Elkarte honek bere banaketa-sarerako sarbidea eskaintzen digu, eta horrek Solargi merkatu eta audientzia berrietara iristea erraztuko du.

Etengabeko berrikuntzarekin eta merkatuaren behar aldakorretara egokitzearekin konprometituta gaude. Telefonoetarako gure zorro magnetikoetan funtzionalitate eta diseinu erakargarri berriak sartzeko asmoa dugu, gure bezeroen interesa eta lehentasuna mantenduz. Ekimen estrategiko horien bidez, Solargik gailu elektronikoetarako osagarri jasangarrien merkatuan lider gisa duen posizioa sendotu nahi dugu.